

JOAN GURUTZEKOAREN MAISUTZA IZPIRITUALA

Joan Gurutzekoak beti izan ditu aldekoak eta kontrakoak. Mundu honetan bizi zanean eta gero ere bai. Haren inguruan beti sortu izan da polemikaren bat. Batzuentzat ideia gogorregiak eta antigualekoak ditu; beste batzuentzat aproposak, hitzez hitz hartzekoak. Ez bata, ez bestea. Ez itsu-itsuan sinestu, ez guztiz baztertu. Tartean lau gizaldi ditugula konturaturik, jarrera kritikoaz hurreratu behar geunke haren bizitza eta idazlanetara.

Santuak, beste edozein pertsona lez, euren garaikoak dira; ingurugiroak eta gertaerak eragina izan dabe haren bizitzan eta bakoitza bere garaiko galderei erantzuten ahalegindu da. Joan Gurutzekoa ere bere garaiko gizona da. Hamaseigarren gizaldiko kultura barruan hazi eta hezia. Giro haretan bizi, idatzi eta santutu zan. Haren bizitza eta idazlanak ulertzeko, giro hori ezagutzea behar beharrezkoa dogu. Abstraktuki ez dau zer esanik gaurregungo munduan, giro politiko, sozial eta erlijioso oso ezbardinak diralako.

«Gaurregungo mundua» aitatzean zer esan nahi dogu? Zertaz dihardugu berba egiten? Afrikan eta European, ekialdean eta mendebaldean ez dabe esannahi bera berba horreek, ez dago kultura eta interes bardintsurik toki guztietan. Beraz, «gaurregungo mundua» zelakoa dan azaltzen hasten garenean, Europa mendebaldeko egoera eta kultura ditugu gogoan, gu hortxe bizi gara eta.

Mundu horren ezaugarrietariko bat fedegabetasuna da. Federik ezak jotako giroan bizi diran kristaumentzat Joan Gurutzekoak zer esanik daukan aztertu nahi geunke; Joanez irakatsitako izpiritubidea zelan bizi leitekeen «gaurregungo munduan».

JOANEN GIROA

Joan *maitasun*, *pobretasun* eta *sinesmen* giroan jaio eta bizi izan zan.

Pobretasuna

Oso gogoan izatekoa da haren bizitza eta idazlanak aztertzerakoan. Hiru urte zituela hil jakon Gonzalo de Yepes, bere aita. Ordurarte ere nahiko premia izango eben etxe haretan, baina aurrerantzean gehiago. Andra alarguna eta hiru mutil koskorrentzat bizimodu gogorra. Lehenengo herri batetik bestera laguntza bila eta senitartekoen atak itxirik. Adinez erdikoa zan mutikoa, Luis, hil egin zan. Hara eta hona ibili ondoren, Medina del Campo-ra joan eta zelan edo halan atera ahal izan eben bizimodua aurrera: anaiarik zaharrena eskean kalerik kale eta Joan behartsuen ikastetxean.

Ez da zalantzarik esperientzia honeek eragin handia izan ebela haren bizitzan eta izpiritualitatean. Hain pobre agertzen bazan, ezbeharrean hain eroapen handikoa bazan, hain aszeta bazan, txiki-txikitatik besterik ezagutu ez ebalako zan. Bizitzak eta familia giroak hauxe irakatsi eutsien: Jaungoikoak ez dituala bere semeak bertan behera uzten; premia orduan ez dala itxaropena galdu behar; alperrikoa dala ostikoka garabiltzan gizartea gorrotatzea: «...*adonde no hay amor, ponga amor, y sacar  amor...*» (Carta 26).

Maitasuna

Aldi haretako oihitura guztien aurka, baina Gonzalo de Yepes eta Catalina Alvarez maitasunak eraginda ezkondu ziran; ez zan hori normalena, ia beti gurasoak erabagiten eben euren seme-alaben ezkontza eta. Gainera giza maila ezbardinetakoak ziran eta aitari oinordetza kendu egin eutsien ezkontza hori dala eta ez dala. Dana dala ezkondu ziran eta aurrerantzean etxe haretan gauza asko falta izan ziran, baina, dirudianez, ez maitasunik, batez ere amaren maitasunik.

Etxeko maitasun giroak barru biguneko egin dau eta haren sinesmen bizitzari bere gatza emon. Sarritan amaren maitasuna Jaungoikoarenagaz parekatzen dau («*Dios nos lleva en sus brazos como la amorosa madre*»).

Sinesmen giroa

Familia sinesmen handikoa agertzen da. Frantzisko, anaiarik zaharrena, santutzat euken; pobreak izan arren behartsu askori laguntzen, kaleetan utzitako umeak jasoten eta hareen batean aitabitxi egiten... ikusi zituan Joanek bere etxeokak. Inguru horretan ikasi zituan Joanek kristau jokabideak. Estualdietan Jaungoikoagan usteona galdu barik, sinesmenez eta maitasunez ezagutu eban bere etxeo giroa.

Joanen bizitzan ez da somatzen sinesmen aldetiko zalantzarik edo kezkarik, eta normala dala esango neuke, gizartea bera erlijiozkoa zan eta. Izango ziran sinesmen bako batzuk, baina banakak.

XVI. gizaldia bizitasun handikoa dogu. Teologia, biblia eta izpiritualitate mugimendu edo korronte ugari sortu ziran. Cisneros Kardinalak Gaztelako kristauen artean barrizatze-giroa sortu eban eta nonnahi aurkitu eitekezan otoitz-taldeak, kristau

sakonak, zintzoak eta jatorrak (ez dogu ahaztu behar garai haretakoak dirala hainbat santu: Sta. Teresa, San Joan Avilakoa, San Pedro Alkantarakoa...). Baina horrekin batera Elizaren doktrinatik kanpo ebilzan mugimendurik ere bazan; «Argieginak» («Los Alumbrados») deitzen eutsen. Egoera honen eragina nabari da Joanen bizitzan eta idazlanetan.

JOANEN PENTSAERA

Joan Gurutzekoa ez da idazle profesionala. Idatzitako guztia edo gehiena inguruko lagunak eskatuta idatzia da eta sarritan gogoz kontra. Bera mistikoa da, Jainkoaren esperientzia bizia dauan gizona, eta joaten zan edozein lekutan Jainkozaletasuna zabaltzen eban. Jainkozko gizona. Ezbai barik Jainkoa da haren bizitza eta idazlanen ardatz. Hari begira bizi izan zan. Bere bizitza osoan zehar Haren bila jardun eban etsi barik. Jainkoaren izateaz ez dauka zalantzarik eta hori egiaztatzen ere ez da ahalegindu. Jainkoa ez da harentzat adimenezko arazo bat, pertsona bizia eta hur —hurreekoa baino. Eta bere gogoeta argion bitartez irakurleak Jainkoaren aurrez aurre jarten ditu. Gizon honen izaera berba gitxitan adieraztekotan, Jainkoaren bila ebilan gizona eta santua dala esango geunke.

Joan Gurutzekoa Jainkoaren bila diharduanean, noren bila dihardu? Zelakoa da Joanen Jainkoa? Non dago? Haren Jainkoa eta gurea, Jainko bera ete da? Gaur egun askok, askeago izango diralakoan, ukatzen daben Jainkoak ete dauko zerikusirik Joanez autortzen dauanarekin?

1. Arimaren muina Jainkoa dala dino (L. 1,12), eta Jainkoa ezagutzeko fedea eta maitasuna behar dirala: «...*el amor es la inclinación del alma y la fuerza... para ir a Dios, porque mediante el amor se une el alma a Dios... De manera que para que el alma esté en su centro, que es Dios... basta que tenga un grado de amor...*» (L. 1,13). Jainkoa maitasuna da eta maitasunez bizi danak aurkitzen dau. Eta kristauaren eginkizuna maitasuna ez dan guztitik urruntzea eta maitasunetik alde eragiten dauan edozer kentzea. Horregaitik kristau bizitza mendira igoterekin gonbaratzen dau. Mendi hori Jainkoa da eta, kristauaren helburua Jainkoarekin maitasunean bat egitea dan ezker, horraino heldu arte, sinesmenean eta aszesian oinarriturik, Kristoren antzeko izaten ahalegindu behar dau. Kristauak bide bi ditu aurrean: bata zabala eta bestea estua; bata eroso, erreza, eskakizun handirik bakoa eta bestea aldapatsua, gogorra, gurutz-bidea. Jainkoaren maitasunaren gailurrera heldu nahi dauanari bide estua, gurutz-bidea hartzea komeni jako.

«*Muchos no querrian que les costase Dios más que hablar, y aún eso mal, y por él no quieren hacer casi cosa que les cueste algo*» (C. 3,2). Helburua maitasunean Jainkoarekin bat egitea da, baina ez da ezer egin barik lortzekoa: grinena eta norbere nahien kontrola, barruko askatasun osoa behar da horretarako. Jainkoaren maitasuna bizitzako helburu nagusizat dauanak, gainerako guztia alde batera utzirik, danen gainetik horixe bilatu behar dau.

2. Munduko izakietan ere aurkitu geinke Jainkoa. Haren barri emoten deuskue gauza guztiak. Izaki guztietan dago eta ezer ez inor ezin da Haregandik aldendu. Baina gauzak ez dira Jainkoa. Geure eskumenean dogun zerbait Jainkotzat hartzen dogunean, benetako Jainkoaren ikuspena ilundu egiten jaku. Gauza guztiak dabe zerikusia Jainkoarekin; izatea daben guztiak Egilea aldarrikatzen dabe, Jainkoaren aztarnak diralako, baina Jainkotzat hartu ezkeru, ez dira ezer. «*De Dios a ellos ningún respeto hay ni semejanza esencial, antes la distancia que hay entre su divino ser y el de ellas es infinita, y por eso es imposible que el entendimiento pueda dar en Dios por medio de las criaturas, ahora sean celestiales, ahora terrenas, por cuanto no hay proporción de semejanza*» (3 S. 8,3).

Joanek irakatsi nahi leukena hauxe litzateke: Gizakiok geurez ezin dogu Jainkoa ezagutu eta maitatu. Jainkoaren bila diharduenarentzat ere hori ezinezkoa da. Jainkoarekin topo egiten dau. Jainkoa aurkitzea berak emoniko dohai edo erregalua da. Baina aurkitu nahi dauanari bila ibiltzea eta norberagandik Jainkoa ez dan guztia aldentzea eskatzen deutso. Jainkoarekin zerikusirik ez dauana, haren kidekotzat agertu arren, erantzi; biluztu geure izatez: ideia, ziurtasun, sineste erlijioso eta moralez... Zergaitik? Jainkoa gure jakituria guztia baino jakintsuago dalako, guk ezagutzen dogun edertasuna baino ederrago dalako, hemengo guztia gaintitzen dauana dalako.

Jainkoaren izaerak benetan kezkatzen dau Joan Gurutzekoa. Jainkoaren ideia faltsua zabalduko ete dan bildur da. Badaki irudiak akastunak dirala; ez dabela Jainkoaren benetako errealtatea agertzen. Badaki baita bila ibiltzeaz gogaitu egiten dala gizakia eta errez hartzen dituala Jainkotzat lurreko izakiak.

3. Jainkoa pedagogo ona da. Gauzak eta pertsonak euroi dagokien erara gidatzen ditu; pertsona erakarteko, *egoki* eta *leuntasunez* jokutzen dau, *gizakiari berari dagokionez*. Giza izaera ezagutzen duan ezkeru, gizakiaren pausu berean doa; ulertu leikena irakasten deutso, eskatu beharrekoa leuntasunez eskatzen deutso. Ez deutso bere erritmora egiteko eskatzen gizakiari, alderantziz baino. Bera da gizakiaren erara moldatzen dana. Aintzat hartzen ditu gauzak ezagutzeko pertsonak dituan bideak; hau da, zentzumenen bidez eta izadiko gauzen forma eta irudiz baliatuz. Gizakiaren berezko erritmora egingo da, «honela gizakia hobetuz baina beroren erara, beheengo eta azalekotik hasi eta gorengo eta barrukora arte» (2 S. 17,3-4).

Jainkoa pertsona apurka-apurka prestatuz eta eraldatuz doa pedagogi sen handiz (2 N. 3,1-3). Gaur eguneko fededunok Jainkoaren jokaera hau oso kontutan izan behar genduke, gure egitekoa ez dalako inori geure ideia, sineste, konpromisoak.. ezartea, ezta euren sinesgabetasuna edo sinesteko zailtasunak aurpegira botatea ere.

GAURKO MUNDUAREN SINESGABETASUNA

Behar bada sinesgabetasuna giza historian zehar beti gertatu dana izango da eta ez oraingoa bakarrik; baina oraingo sinesgabetasunak bere ezaugarri bereziak ditu.

Lehenengo eta behin ez dogu ahaztu behar, hain sinestunak izanik, Sokrates, lehenengo kristauak eta judutarrak erlijio gabe eta jainkogabetzat kondenatuak izan zirela. Lehenengo kristauak jainkogabetzat hartu eta gaitzetsiak izan ziran, inperioko erlijioa ez ebelako onartzen; eta era berean, honeek, «jainkogabe» hitza filosofo sinesgogorreki eta jentilei deitzeko erabili eben. Sarri gertatu ohi da Jainkoaren ideia bat norbere baitan moldatu eta ideia horrekin bat ez datorrena jainkogabetzat hartzea. Honela, jainkogabetzat hartu dira Descartes, Paschal, Malebranche. Norbait jainkogabetzat hartzea fededunak egiten dau, bere sineste edo fedearen ikuspegitik. Zertzelada hau gogoan izatea komeni da, hitz hori, norbere sineste berekoa ez danari aurpegira botateko, irain antzera erabili ez daigun.

Gauregungo sinesgabetasunaren ezaugarri batzuk aitatuko ditugu soilik. Vaticano II.ak gogoratzen deuskunez, sinesgabetasuna era askotara agertzen da: «jainkogabetasun» hitzak mota askotako fenomenoak adierazten ditu, eta bakoitzaren ezaugarriak ere besteetatik oso ez bardinak dira.

Zehaztasun handirik emotea ia ezinezkoa bada ere, oraingo sinesgabetasunaren ezaugarri nagusitxoena jarriko ditugu.

1) Sinesgabetasunak, historian zehar lehenengo aldiz, jendetza handia hartzen dau. Horretaz ari da *Gaudium et Spes* 7. zenb. honako hau dinoanean: «...geroago eta jende multzo handiagoak erlijioa bertan behera utziz doaz. Jainkoa nahiz erlijioa ukatzea ez da, lehenagoko denboretan zanez, gauza bakana eta banakakoa». Teologo eta soziologoak ere, sinesgabetasuna, talde berezien fenomeno izatetik jende multzo handiena izatera etorri dala baieztatzen dabe. Jainkogabetasuna XVII. gizaldian giza maila birengan egoala sustraiturik esan geinke: goi mailakoan eta erdiko mailako jakitun batzuegan. XVIII. eta XIX. mendeetan ere oraindik, aurrerakada handia egin arren, sinesgabetasuna gitxiengoaren fenomeno zan. Gaur egun, oster, giza maila guztietakoei dagokie eta jende multzo handiak hartzen ditu.

2) Oraingo sinesgabetasuna erlijioaren edo kristau erlijioaren ondorengoa dala esan izan da. Honek, kristau erlijioaren ondorik etorri dala esan nahi dau eta kristauak bizi izandako Jainkoa aintzakotzat hartu ez edo ukatu egiten daua.

3) Oraingo sinesgabetasunaren beste ezaugarrietariko bat kulturaren dauan eragin handia da. Sinesgabetasunaren kultura bat gauzatu dala esan geinke: izateko, balioak mailakatzeko, sentitzeko eta pentsatzeko era ez bardin bat.

Oraingo sinesgabetasunaren ezaugarri honek gogoan harturik, fededuna egoera berezi baten biziko dala uste dogu. Behar bada ez da hain eroso izango oraingo kultura eta gizartean fededun lez bizi izatea.

SINESGABETASUN GARAIKO IZPIRITUALITATEA

Oraingo egoeran kristautasuna bizi izateko era barria aurkitu beharra dogu; XX. gizaldiaren amaieran Jesukristoganako leialtasunean bizi izateko era aurkitu. Asko etsipenaren *temaldian* jausiko dira eta gaur eguneko kulturaren ez dabe kristauontzat gauza onik ikusiko. Gainditutako egoeratan jarririk, ideia hertsiegietan finkaturik barrikuntza guztiei itxirik dagozanentzat, oraingo egoera hau, negargarria da. Baina zera baieztatu behar dogu: sinesgabetasun garai honetan ere kristau izatea ez dala ezinezkoa. Joan Gurutzekoak lagundu leikigu, fededunei izpiritualitate biluzia eta giza sostengurik bakoa eskatzen deuselako, giza egarria ase leiken bakarria dan Jainkoagan soilik euskarria dabela.

«*Siempre el Señor descubrió los tesoros de su sabiduría y espíritu a los mortales: más ahora que la malicia va descubriendo más su cara, mucho más los descubre*» (Dichos 1).

1. Kanpoko arriskua.

Kristau askok, sinesgabetasuna, kanpoko arrisku antzera ikusten dabe, kristau-bizitza desagitera datorren ekaitz antzera. Askok, sinesgabetasuna zabalduz doala ikustean, itaun hau egiten dabe: «Gizasemea etorri daitenean, aurkituko ete dau federik lurrean?». (Luk. 18,8). Bildur honek, oraingo munduagazko mesfidantza sakona eta Jainkoaren ahalmenean usterik eza dau oinarrian eta «belaunaldi gaizto honengandik» euren buruak zelan babestuko dabilta. Era honetako pertsonen eta taldeen izpiritualitatea mengela, motela izango da, gizaki guztiekiko solidaritza, munduaganako maitasuna, euren eginkizunaren eta munduan bertako egitearen kontzientzia faltako jaketzalako.

Sinesgabetasuna deabru berberaren irudi edo seinaleztat hartuko dauanik ere izango da. Aurrez ondo pentsatutako asmo bat betetzen diharduen pertsona eta erakundeek lana dala esango dabe eta gizartean haren kontra gogor egingo dabe burruka. Ebanjelizatzearen beharra dagola esango dabe, baina «kristau txarren lotsa uxatu eta kristau-ahotsa entzun azoteko» kanpaina antzera ulertuz.

Sinesgabetasunaren aurkako erreakzio honek, kristau bizitza ulertzeko moduan dauka abiapuntua: euren ideietan ziurtasun osoa dauke, kristau bizitza militar erara ulertzen dabe, eta kristau danen artean bardintasuna nahi dabe.

Baina Kristau bizitzak Ebanjelioaren funtsezko elementuak izan beharko ditu kontutan: norbere fedearen ahultasunaz ohartzea; pekatari garela jakiteak dakarren apaltasuna; garia eta zalgea beti alkarren ondoan hazten diran mundu honen aurrean eroapena; pertsonen erritmoan gauzak egiten dituan Jainkoaren pedagogia; gure uste guztiak gainditzen dituen Jainkoaren ezagupena, guretarikoak ez diranen artean ere agertu eta mirariak egin leikezan Jainkoaren ezagupena; Jainkoarekiko uste ona...

2. Fede-esperientzia bizirako deia.

Askoren kristau bizitza, lehenagoko denboretan, gizartean eta kulturaren oinarritzen zan. Jaio eta egun gitxi barru bataiatu ondoren, kristau dotrina ikasi eta Jainkoa

euren bizitzan tarteko dala bizi ohi ziran. Gizartea sekularitzeak, erlijioaren giro babesgarri hori hausi egin dau, eta sinesgabetasunak eta kulturaren horrek dauan eraginak urrindu egin dau Jainkoaren presentzia haren bizitzatik.

Guk sinesten dogun Jainkoa benetan ezkutuko Jainkoa da. Misterio ulertezina lez agertzen da. Horregaitik Jainkoarekin aurkitzea ilunpean gertatzen da, adimenaren gau ilunpean. Horrela fedebakoak aldarrikatzen eta bizi daben sinesgabetasuna nahiko erakargarri gertatzen da fededunentzat. Fedebakoen itxurazko argitasuna eta logika benetako tentaldi bihurtzen dira fededunarentzat. Haraindikoa edo trazeendentea alde batera utzi eta soilik mundukoa dan argi itxurazko horretara jotzeko gonbidapena jasoten dau.

Egoera honetan, kristauak zalantza itsuaren edo etsipenaren tentaldia izango dau. Benetako fededunak, orduan, fedeari heldu behar deutso eta uste guztien kontra itxaron. Zailtasunez beterik gogozanean da une egokia geure buruari nor garen galde-tzeko; gure ustearen oinarria dan haregan ziurtaturik fedea bizi izateko: «*Edonor izanda ere, zuk ezagutzen nozu! Ni zurea nozu, Jauna*» (Bonhoeffer).

Sinesgabetasuna erronka baten antzera agertzen jake kristau batzuri. Kulturaren egoera barri honek kristau bizitzaren era barriak bilatzera behartzen ditu, izpiritubide barria bilatzera.

Sinesgabetasunaren erronka onartzeak, geure fedea harekin alkarrizketan bizi izateko prest gagozala esan nahi dau. Beraz, errealtate horretara adi egon; fenomeno hori, geure esku ditugun baliabideak erabiliz, ezagutu; haren galderak eta kritikak entzun...

Teoriz bai; teoriz ia kristau guztiak prest egongo dira fedebakoekin alkarrizketa izateko, baina benetako orduan ez dabe guztiak hori onartzen. Alkarrizketarako ezinbestekoa da inor deskalifikatu barik jokatzea. Hau da: ez da uste izan behar, Jainkoa fededunak lez onartzen ez dabelako, giza bizitza bizi ezin dabenik, moral bakoak diranik edo eta haren bizitzak ezelako zentzurik ez daukanik.

Sinesgabetasuna onartzeak zera esan nahi dau: sinesmenaren argitan ikusi behar dala; hau da, Jainkoak historiaren hariak gidatzeko era bat horixe dala konturatu eta horren bidez geure fedea bizi izateko aldakuntza sakon baterantz dei egiten deuskula. Gure garaiko ezaugarritzat hartu behar dogula, eta Izpiritua, fededunen jarrerak aldatzeko, horretaz baliatzen dala.

Sinesgabetasunezko egoera honek fedea norbere nortasunean sustraitzea eskatzen dau; kulturazko praktika, moralismoa edo legez talde horretakoa izatea eta abar gainditu beharra dago. Oraingo munduan kristauak fede —esperientzia bizi izatera jo behar dau, bestela erlijio— praktika bertan behera utziz amaituko dau.

Sinesgabetasun-egoerak fedearen berezitasun esanguratsu batzuk berreskuratzeke abagune ona eskeintzen deusku: giza historian diharduan Jainko misteriotsua onartzea, gure uste guztien gainetik dagoen Jainko trazeendentea; bere isiltasunean ere hantxe, geure ondoan dagola adierazo nahi deuskun Jainkoa ezagutzea. Sinesgabetasuna, benetako Jainkoa eta honen irudiak nahastatzen dituen fededunentzat, samintasunezko sendaketa edo garbiketa bat da. Jainkoaren jabe ezin dogula izan konturatzera eroango gaitu, ezin dogula Ha ulertu, ezta behin betiko aurkitu ere. Beti

ere bila jardun beharko dogula, eten barik esanez: «*Non ezkutatu zara, maitea, ni nahigabez utzirik?*».

3. Fedearen iluntasuna onartzea.

Egia esan, fedea, ziurtasunez beteriko atxekimendua da, baina atxekimendu hau ez da norbere kontzientzia, arrazoi eta indarretan oinarritzen. Kristauak, bere aldetik, ezelako ziurtasunik ez dau. Fededuna besteen antzekoa dala konturatzen da, baina graziaren ondorio dan laguntza sendoak eusten deusola. Bere ideiak erlatibizatu egiten ditu; Jainkoaren ezkutatze edo isiltasuna dala eta nahigabez dagozanekin bat egiten dau; gizakiei begirune handia deutse eta Jainkoa bere garaian agertuko dan uste osoa dau.

Kristautasuna uri handietan ixilik?, munduaren erdian gordea, galdua izango ete da? Ezetzean gagoz, bere egitekoa galdu ezker, kristaua ez litzateke kristau izango eta. Sinesgabetasunezko egoeran kristauak ebanjelizatzaile izan behar dau. Eta testigantza lez bizi izaten danean da kristautasuna ebanjelizatzailea. Testigantza hau, fede -esperientza pertsonala bizi izanez eta besteenganako solidaritaz, emoten da.

Sinesgabetasunak, kristauei, euren erakunde erlijiosoak eraldatzera eta munduan agertzeko erak barriztatzera eragin leikioe; Jainkoaz ditugun ideia desegokiak agirian jartzen ditu. Sinesten ez dabenei entzunez, gure sineste, erlijio, bizikera eta erakundeetan jainko faltsuak dirala ohartzen gara eta fedearen bitartekoak garbitu beharra dogula. Zelan? Ebanjelioaren arabera eta oraingo aldian aintzat hartzen diran balioak estimatuz, Kristori jarraitzeko ahaleginetan bizi izanez. Horregaitik, fededunak eta Elizak begirune osoa izan behar deutse edozein gizakiren askatasunari eta, munduan, askatasunaren eragile izan behar dabe. Egia, ermeten dan lekuan ermeten dala, onartu eta zabaltzen ahalegindu beharra dago. Eliza edo kristau erakundeetan anaitasuna indartu daitela. Behartsu eta nahigabetuak izan daitezala benetan maiteenak. Begirunez edo errespetuz bakoitzaren Jainko-bizipena besteengana zabaldu.

Oraingo sinesgabetasun hau, kristauak, ez dabe areriotzat edo arriskutzat hartu behar. Kristau izpiritualitate barri bat bizi izateko gonbidapena dogu: «*...estas cosas no las hacen los hombres, sino Dios que sabe lo que nos conviene y las ordena para nuestro bien. No piense otra cosa sino que todo lo ordena Dios; y adonde no hay amor, ponga amor, y sacará amor...*» (Carta 26).

JOSE LUIS GERRIKAGOITIA
Markina

EL MAGISTERIO ESPIRITUAL DE SAN JUAN DE LA CRUZ

El entorno y las circunstancias históricas influyen en todos, también en los santos. Por eso, al acercarnos a la vida y obras de S. Juan de la Cruz, conviene no olvidar que vivió, escribió y se hizo santo en el siglo XVI. Dentro de la familia nació y vivió en un ambiente de fe, pobreza y amor. Esto fue lo que más marcó su vida.

Juan de la Cruz buscó a Dios con ansia y vivió con la mirada puesta en El. Por encima de todo es un hombre de Dios. ¿Qué puede enseñar este Doctor de la Iglesia a los creyentes que vivimos en un contexto de increencia?: 1) A reconocer que Dios está muy por encima de nuestra representación de él; aceptar la pedagogía de Dios, que hace las cosas al ritmo de la persona; la confianza en Dios. 2) Aceptar la increencia como un hecho a través del cual Dios conduce la historia y nos invita a personalizar la fe. 3) Aceptar la oscuridad de la fe. La increencia hay que vivirla como don de Dios, que nos ayuda a purificar las mediaciones de nuestra fe.

LE MAGISTERE SPIRITUEL DE SAINT JEAN DE LA CROIX

L'environnement et les circonstances historiques ont leur influence sur tout le monde, sur les saints aussi. C'est pourquoi, en nous approchant de la vie et des oeuvres de saint Jean de la Croix, il importe de ne pas oublier qu'il vécut, qu'il écrivit et devint saint au XVI^e siècle. A l'intérieur de sa famille il naquit et vécut dans une ambiance de foi, de pauvreté et d'amour. C'est cela qui marqua le plus sa vie.

Jean de la Croix cherche Dieu avec un désir ardent et il vécut avec le regard fixé sur Lui. Par dessus tout, il est un homme de Dieu. Que peut enseigner ce Docteur de l'Eglise, à nous croyants qui vivons dans un contexte d'incroyance?: 1) A reconnaître que Dieu est bien-au-dessus de la représentation que nous faisons de lui; à accepter la pédagogie de Dieu, qui fait les choses au rythme de la personne; la confiance en Dieu. 2) Accepter l'incroyance comme un fait au travers duquel Dieu conduit l'histoire et nous invite à personnaliser notre foi. 3) Accepter l'obscurité de la foi. L'incroyance, il faut la vivre comme un don de Dieu qui nous aide à purifier les médiations de notre foi.